



Elkartasun izpi bat Zornotzatik Saharara

Zornotzako lagun talde batek sahararrei laguntzeko kanpaina bat hasi du. Hiru kidek Sahara Maratoian parte hartuko dutenez, hara bidaiatu aurreko egunak aprobetxatzen dabilta botikak eta osasun materiala batzeko • 2-3

Azoka, betikoa; giroa, ezohikoa

Urtebeteko etenaldiaren ondoren, makina bat jende batu da Abadiñoko sanblasetan. Feriak ez du hutsik egin. Mugimendu polita egon da baserri eta ganadu azoketan. Baina askok betiko jai giroaren falta igarri dute. • 5



Otxandioko plazako indusketa berriek dorretxe baten aztarnak azaleratu dituzte

Otxandio • Dorretxe hori abendañotarren leinukoa zela ere uste dute ikerlariek, iturri idatzietan oinarrituta. Dorretxearen aurretik herrixka bat zegoen espazio hartan; aurkituriko aztarnarik zaharrenak X. mendekoak dira. • 10



Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

2022ko matrikula librea ZABALIK

On-line

Urtarrilaren 24tik
otsailaren 11ko 13:00etara arte.

36,18€

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45





“Maratoiak irauten duen astea eurekin partekatzea arnasa da sahararentzat”

Zornotzako lagun talde batek Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren sahararrei laguntzeko egitasmoa ipini du martxan. Lagun taldeko hiru kidek Sahara Maratoian parte hartuko dute eta osasun materiala eramango dute hara

ELKARTASUNA • EKAITZ HERRERA

Aurtengo Sahara Maratoia otsailaren 28an egingo dute. Zornotzako herritar batzuek bertan parte hartuko dute eta hara bidaiatu aurreko egunak aprobetxatzen dabilta botikak eta osasun materiala batzeko. Gero, charter hegaldi batean, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekura joango dira maratoia egitera eta botikak bertan uztera. Jabi Gonzalezek, Izaskun Gisasolak eta beste korrikalari zornotzar batek parte hartuko dute.

Zein da helburua eta zeintzuk zarete egitasmoaren atzean zaudetenak?

Jabi González: Gure lehenengo Sahara Maratoia 2012koa izan zen. Aldi hura kirol erronka modura hartu genuen. Baina hurrengo urteetan beste planteamendu batez joaten hasi ginen. Ez hainbeste kirol ikuspegitik. Hangoekiko elkartasunean sakonduta baino. Aurtengoa gure zazpigarren urtea izango da.

Alaitz Etxebarria: Maratoia, kirol erronka hori, egon badago. Eta badago hori egitera bakarrik mugatzen den jendea. Baina erronka horri gehitu diezaiokezu familia batez egonaldia egitea. Hortik sortzen dira bestelako laguntza proiektuak. Gu joan izan gare-

nean ez gara maratoi osoa egitera joan. 10 kilometroko ibilaldi bat egin izan dugu. Egonaldiak hango jendeagaz hartu-emanak egiteko eta proiektuak sortzeko aukera ematen du.

Luis Urrengoetxea kaleko 8. atarian egoten gara osasun materiala eta botikak batzen, astelehen eta eguenetan

Osasun materialaren bilketa oso erantzun ona izaten ari da. Herritarrek eta komertzioak egundoko laguntza ematen dabilta

Zelako maratoia da?

J.G.: 42 kilometroko maratoia da. Aaiun izeneko kanpalekutik Smararaino. Gero, badago maratoi erdia ere, 21 kilometrokoa. Hori Auserd kanpalekutik Smararainokoa da. Azkenik, 5 eta

10 kilometroko probak daude. Normalean, charter hegaldi bik irteten dute. Madrilatik (Espainia) batek, eta Italiatik beste batek. Mundu osotik joandako jendeak parte hartzen du. Maratoi gogorra da. Pentsa, dena basamortua da. Dunak daude, beroa. Eta maratoia zenbat eta beranduago hasi, orduan eta txarrago, beroa handiagoa da eta.

Basamortua, dunak eta beroa. Baina baldintzak gogorak izan arren, sahararrekiko elkartasunak bultzatuta zailtasun guztiak gainditzea lortzen duzue.

J.G.: Bai, oso maratoi berezia da. Azken finean, errefuxiatuen kanpaleku batean zaude, euren lurretatik kanporatu dituzten sahararrek. 45 urte daramatzate euren lurretatik kanpora.

A.E.: Maratoia sahararren gatazka politikoari ikusgaitasuna emateko modu bat da. Jende batengana heltzeko modu bat. Jende asko kirol erronka egitera mugatzen da, baina gero badaude beste parte hartzaile asko, aste osoko egitarauan inplikatzeko direnak. Familia batez partekatzen da egonaldia, haima batean, eta urte osoko hartu-eman bat sortzen da hor. Sahararentzat arnasa da hori.

Zornotzan hasi duzuen egitasmoa ez da maratoira bakarrik mugatzen. Elkartasun bilketa ere martxan duzue.

Izaskun Gisasola: Bai, botikak eta osasun materiala batzen gabiltza, sahararrei ahalik eta laguntzarik handiena emateko. Astelehenean eta eguenetan egoten gara materiala eta botikak batzen, Luis Urrengoetxea kaleko 8. atarian, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



Jabi Gonzalezek eta Izaskun Gisasolak Sahara Maratoian parte hartuko dute.

A.E.: Egin dezakegun gutxienekoa da hori. Bilketa egiten dugun hirugarren aldia da hau. Egitasmoa oso harrera ona izaten ari da eta Zornotzako optikek ere sekulako parte hartzea izan dute. Egia esan, Zornotzako komertzioek izugarri laguntzen digute. Botikak, optikek... Informatika den-dei eskerrak, ordenagailuak eraman izan ditugu hara. Mertzeriei eskerrak, umeentzako arropak eraman izan ditugu. Margoak, hariak... Deialdia egiten dugun aldiro herritarrek eta komertzioek primeran erantzuten dute. **Maratoiaz gainera, zelakoak izaten dira Tindufeko kanpalekuetako egonaldiak?**

J.G.: Euskaldunok Smara kanpalekuren kanpoaldera joaten gara. Hango familiekin aterpetuta egoten gara. Despedida ailegatzen denean, afaria egiteko ohitura dugu. Gogoan dut behin etxeko ume batez joan ginela erosketak egitera. Ume hori Nafarroan egonikoa da, Oporrak Bakean programagaz. Bada, erosketak egitetik etxera bidean gindoazela, mutikoak "bokata, bokata!" eskatzen zigen. Irudi hori oso gogoan dut. Eurentzat errege magoen antzeko zeozer ginen.

A.E.: Kanpamentuetan elikaduraren kalitatea oso txarra da. Arlo horretan, geroago eta arazo gehiago dute. Orain arte egon ez diren osasun arazoak sortzen hasi dira. Diabetesa, adibidez. Loditasun arazoak ere bai. Barazkiak eta fruta oso garesti daude. Hemen baino garestiago. Arrainik ez da existitzen, latan ez bada. Okelari dagokionez, gamelu-okela jaten dute, beste askorik ez. Baina oinarria pasta, arroza eta kuskusa dira. Latako tomateagaz jaten dituzte sarri, janari prozesatuagaz. Eta herri mugitua, nomada, izan denak, orduak eman behar izaten ditu haiman. Orain arte existitu ez diren hainbat osasun arazo sortzea eragin du horrek.

Urterik urteko elkartasuna, Zornotzatik Saharara

Zornotzarrek Sahara Maratoian parte hartzen duten zazpigarren aldia izango da aurtengoa, eta osasun materiala eta botikak bidaltzen dituzten hirugarrena.

- 1) Saharako umeen maratoia, 2012an.
- 2) 2020an, zornotzarrek 23 kaxa bete osasun material eraman zituzten.
- 3) 1976ko otsailaren 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren independentzia aldarrikatu zuten. Harrezkero, otsailaren 27a denean martxa bat egiten dute kanpalekuan. (2019)
- 4) Jabi González zornotzarra maratoian parte hartzen. Ezkerretik hasita hirugarrena da. (2019)



DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Lehen, ikastetxeetan zein supermerkatuetan baturiko 25 tona janarigaz betetzen zuten kamioia Río de Oro elkarteko kideek. Iaz, pandemiaren eraginez, janaria batu beharrean, herritarren diru ekarpena hartu, eta horregaz elikagaiak erosi zituzten. Aurten ere sistema bera ipini dute martxan. "Emaitza berdina izan zen. Hala ere, guk gurago genuke presente egon, ikastetxeetan eta merkataritza-guneetan laguntza ematen duten pertsonekin hurbileko hartu-eman izateko", esan dute Río de Orokoek. Iaz, zalantza izan zuten ekarpenak egiteko aukera horrek emaitza onak izango ote zituen, baina herritarren erantzuna ezin hobea izan zela azaldu du Mikel del Arco Río de Oroko kideak. "Aurten ere 25 tona elikagai batzea da helburua eta ziur lortuko dugula", diote elkarteko kideek.

Ekarpenerako hiru kopuru

Río de Oro hiru dohaintza kopuru ipini ditu: 4, 8 edo 12 eurokoak. Banku-transferentzia bat eginda parte hartu gura duenak Laboral Kutxako kontu korrante honetan sartu beharko du dirua: ES90-3035-0129-11-1290034483. Bestalde, Bizum sistemagaz lagundu gura duenak zabalik du horretarako aukera. Erabiltzaileak Bizum aplikazioan sartu beharko du,

Río de Oro martxan ipini du saharar errefuxiatuen kanpalekuetara elikagaiak bidaltzeko karabana solidarioa

Aste honetan hasi duten kanpainaren bitartez, 25 tona janariz bete gura dute kamioia



Río de Oroko kideak iazko karabana solidarioko kamioia betetzeko janaria biltzen.

eta Río de Oro Durangaldea kontua bilatu. Behin identifikatuta, 01955 kodea sartuta egin dezake diru ekarpena.

COVID-19aren eraginez Tindufeko kanpalekuan egorak

okerrera egin duela gogoratu dute elkarteko kideek. "Saharar herriaren auzian, konponbidea politikoa da. Pertsona hauek Mendebaldeko Saharara bueltatzea da irtenbidea, euren herri-

ra", dio Mikel del Arcok. Baina Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuan beharizan asko dituzte. Elikadura, hezkuntza, osasuna... Baldintza atmosferikoak ere oso gogorak dira. "Laguntzak gutxi-

tu egin dira bizi dugun egoeraren eraginez. Gainera, Marokogaz gerran jarraitzen dute, hedabideetan horretaz berba egiten ez den arren", gogoratu du del Arcok. Faktore bi horiek egoera asko zailtzen dutela dio durangarrak.

Iurretan, karabana solidarioaren barruan, udalak eta Río de Oro Kilo bat elikagai errefuxiatuentzat, liburu bat zuretzat ekimena martxan ipini dute elkarlanean. Ekimen honen helburua kilo bat arroz, pasta, azukre, lekale, pakete bat konpresa, litro bat olio, hiru lata atun edo lata bat sardinaren ordez, liburu bat trukatzeko da. Otsailaren 13ra arte parte hartu daiteke.

Ume sahararrak

Saharar umeak uda pasatzera ekartzeko programaren inguruan, "ziurgabetasun handia" dagoela dio del Arcok. "Egunak aurrera doazen neurrian, geroago eta gaxagoa izango da programa hori martxan ipini ahal izatea. Gai honeguz nahiko haserre gaudu. Espainiar estatua eta beste edozein lekutara turistaz beteriko hegazkinak heltzen dira. Uste dugu borondate politikoa behar dela. Programa hori modu seguru batean antolatu ahal izango litzateke. "Amorru handia ematen digu, posible delako beste urte batez ere hurrak ez etortzea".



Sorginolako gazteak gaztetxearen kanpoko aldean.

Sorginola maiatz aurretik bota gura dutela salatu du Gazte Asanbladak

Eraikina maiatz aurretik bota gura dutela salatu dute gazteek; alternatiba eskatu dute

DURANGO • E.H./A.M.

Sorginolako asanbladak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak maiatz aurretik bota gura duela eraikina. Iazko udan, Jaurlaritzaren Sprilur S.A. enpresa publikoak Fundifes inguruko lursaila erosi zuen, Maristak ikastetxeak bere egoitza berria bertan eraiki dezan etorkizunean. Iazko ekainean, Fundifes izandakoaren lursailak Jaurlaritzaren Sprilur S.A. enpresak erosi zituen, hauek deskontaminatu, berreskuratu eta bertan "goi mailako heziketa beharrezane" erantzuteko.

Sorginolako gazteek proiektu hori bertan behera uzteko edo alternatiba bat eskaintzeko eskatu diete Jaurlaritzari, Durangaldeko Mankomunitateari "batez ere", eta baita Durangoko Udalarari ere. "Gure etxea saldu dute gu barruan gaude eta beste behin argi uzten dabilta noren interesen alde gobernatzen duten. Gaztetxea botaz gero, gazte askorentzat erreferentzia izan den espazio bat botako dute. Artea eta kultura sortzeko espazio bat, aisialdi eredu alternatibo bat, antolakuntza politikorako tresna bat, Durangoko eragileentzako

eraikin bat, bizi eredu askatzaileak imajinatzeko proiektu bat. Sei urtean ehunka eskuk eraikitako amets bat", salatu dute gazteek ohar baten bitartez. Datozen egunetan ekimenak egingo dituztela ere iragarri dute.

Maristak Berria

Maristak Berria proiektuak Lanbide eta Goi mailako heziketa sustatzeko helburua duela adierazi zuten iaz sustatzaileek, batez ere mugikortasun jasangarriagaz loturiko enpleguak sortzera bideratuta.

Hainbat erabiltzailek Durangoko txakurguneetan hobekuntzak egitea eskatu dute

Erabiltzaile batzuek eta udaleko ordezkariak batzarra egin dute txakurguneen egoeraren inguruan berba egiteko



Errotaritxuenako txakurgunea.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Erabiltzaile batzuk ez daude gustura Durangoko txakurguneen egoeraz, eta udaleko ordezkariak batu dira asteon. Txakurguneko erabiltzaile den Eva Fernandezek batzarraren balorazio positiboa egin du eta "entzunak" sentitu direla dio. Gainera, udalak euren deia "berehala" erantzun izana eskertu du. Aritz Bravo zinegotziak ere "erabiltzaileen feedbacka" jaso izana "eskertzeko" dela adierazi du eta "ahal den neurrian" eskariei erantzuten ahaleginduko direla.

Bere txakur biek Errotaritxuenan dagoen txakurgunea era-

biltzen du Fernandezek eta hango erabiltzaileak dira mobilizatu direnak gehienbat. Sasoi batean, 2.000 metro karratu inguruko espazio batean egoten ziren, baina, gero, 800 metro karratu inguruko txikiago batera tokialdatu zituzten. "Metro asko kendu dizkigute", dio Fernandezek.

Durangoko beste txakurguneak bisitatu dituzte zelan dauden ikusteko. "Erdiek itxigailuak apurtuta dituzte edo iturriek ez dute funtzionatzen. Batzuetan zelaian zuloak daude edo zuhaitzak apurtuta eta txakurrek min hartu dezakete", esan du Fernandezek.

Gorka Fraile preso durangarrak kondena osoa bete du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Etixerat elkarteak jakinarazi duenez, Gorka Fraile Iturralde euskal preso durangarra kalean da kondena osoa bete eta gero. 24 urteko kondena bete du. Fraile 1998ko apirillean espetxeratu zuten. Espai-

niako estatuko hainbat kartzelatan egin du espetxealdia. Aranjuezen, Caceresen eta Badajozeko kartzelatan egon da hogeitaz urtean, lehenengo graduan. 2015ean mingaineko minbizia topatu zioten eta 2018ko azaroan Badajozeko kartzelatik

Kantabriako El Duesora lekualdatu zuten. 2020ko urtarrilean hirugarren gradua eman zioten eta egoera horretan egon da kondena osoa konplitu duen arte.

Etixerat elkartearen esanetan, 2017tik hona Fraile "lehenengo preso izan da Euskal Preso Politikoen Kolektiboak harturiko norabidetik baldintzapeko askatasuna lortu bitarteko ibilbide juridiko-penitentiario osoa eginen.



Argazkiaren erdian, Gorka Fraile familiakoez eta lagunez inguratuta.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko otsailaren 4a
20. urtea - 880. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Giro ederra Abadiñoako ezohiko San Blas Azokan

Abadiñoarrek giro eguzkitsuan egin dute feria; inguruko baserriar eta abeltzainen erakustokia izan zen

ABADIÑO • A.M.

Ezohiko formatuan izan den arren, Abadiñoako sanblasek pandemia aurrekoen itxura hartu zuten eguenean. Goizean goizetik herritarrek posturik postu ibili ziren. Anekdotak ere gertatu

eguna. Udalak neurri bereziak hartu zituen osasun neurriak kontuan hartzeko.

Guztira, 88 ekoizle eta 150 abelburu batu ziren San Blas azokan. Aurten, estreinakoz, sari bi banatu dituzte: fruta eta barazki posturik onenari eta posturik txukunenari; bakoitzak 250 euro jaso zituen.

Guztira, 88 ekoizle eta 150 abelburu batu ziren Abadiñoako San Blas azokan, atzo

zen lehenengo orduan. Idi batek ihes egin eta zauria eragin zion gizon bati buruan. Hala ere, jai giroan ospatu zen San Blas

Kritikak EH Bildutik

Astean zehar ika-mika sortu da San Blas azokaren antolaketa-gaz. EH Bilduk, ohar baten bitartez, "gauzak behar den moduan" ez egitea leporatu zion udal gobernu taldeari. Jaiak "nahieran" antolatzea egotzi zion alkateari oharrean.



San Blas azokako postua.

Manifestazioa Ermutik Eitzagara hondakindegiko lur-jausiaren bigarren urteurrenean

Domekan egingo dute mobilizazioa, 12:00etan. Ermuko plazan hasiko da eta ekitaldia Eitzagan egingo da, 13:00etan




Mobilizazioaren aurkezpena egin zuten eguaztenean Eibarren.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Domekan urte bi beteko dira Zaldibarko zaborteia amildu zenetik. Aldaketaldiak, Ekologistak Martxanek eta Zaldibar Argituk prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean, otsailak 2, hilaren 6ko manifestazioa iragartzeko. Horrez gainera, 2022ko Aldaketaldiaren egitaraua aurkeztu zuten.

Gaizka Zabarte Zaldibar Argituren bozeramaileak lur-jausian hil ziren Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze gogoan izan zituen eguaztengo prentsaurrekoan, eta baita Eitzaga-

ko bizilagunak ere. "Eitzagan 37 lagun bizi dira; hildakoez gainera, eurak dira kaltetue-nak. Osasun azterketak egitea eskatu zieten Eusko Jaurlaritzari eta Zaldibarko Udalari eta biek ukatu egin zizkieten", azaldu zuen Zabartek. Horrez gainera, Zaldibarko krisiaren kudeaketa "Tapia Legearen aurrekaria" lez izendatu zuten. "Entsegu egin zuten Zaldibarren, izan ere, Eusko Jaurlaritzak hartu zituen erabakirik garrantzitsuenak, baita Zaldibarko Udalarenak diren esku-menekin ere".



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEUAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES


Lanbide

2022ko eskaintza

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK			
LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK			
OC22480007	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan. MODULOAK MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	Urria
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
OC22480004	Soldadura karbono-altzairuzko xafla eta profilez estalitako elektrodoekin eta erutilozko elektrodoekin (UF1623)	90	Martxoa
OC22480005	Soldadura karbono-altzairuzko xafla eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarriko elektrodoekin (UF1624)	90	Urria
OC22480006	Soldadura karbono-altzairuzko, altzairu herdoilgaitzeko eta beste material batzuetako egiturez estalitako elektrodoekin (UF1625)	90	Azaroa
MERKATARITZA ETA MARKETINA			
OC22480003	Ingeles profesionala merkataritza-jardueretarako(MF1002_2)	90	Otsaila/martxoa
OC22480051	Sare sozialen bidez saldu: facebook y pinterest	12	Martxoa
OC22480052	Dropshipping	30	Apirila
OC22480064	Shopping on mobile: merkataritzarako aukerak mugikorren bidez salduz.	12	Urria
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK			
Langabetuak (praktikak enpresan)			
22480010	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ108)	510	Urria
22480006	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan. MODULOAK MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	Maiatza
22480008	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan. MODULOAK MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	Urria

Informazioa eta izen ematea: www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak.



Urritze auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com

Landa eremuan bizi diren Durangaldeko familiek zailtasunak dituzte 16 urtetik gorako seme-alabak eskolara garraiatzeko

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan bermatzen du eskola garraioa, baina ez hortik gorako ikasketetan. Eskola garraioa ezin bada, garraio publikoa berrikustea eskatu du Garaiko herritar batek

GARAI • EKAITZ HERRERA

Elkarrekin Podemos – Ezker Batua koalizioak Durangoko institutuko eskola garraioari buruzko galderak erregistratu zituen iazko azaroan, Eusko Jaurlaritzan. Isabel González legebiltzarkideak Hezkuntza Sailari zuzendu zizkion galderak, Garaiko eta Berrizko zenbait familiagaz hartu-emanetan egon eta gero. Kontua da familia horiek zailtasunak dituztela seme-alabak egunero Durangoko institutura Batxilergoa egitera bidaltzeko, "Hezkuntza Sailak ez duelako garraio antolatuturik" eurentzat eta "ez dagoelako garraio publikoaren eskaintzarik ordutegi horretara egokituta". ANBOTOK egoerak kalteturiko Garaiko familia bategaz berba egin du. Honako hau kontatu dute: "Gure hamasei urteko semeak Batxilergoko lehenengo mailako ikasketak egiten ditu Durangoko institutuan, baina ez du eskola garraibiderik. Gurasook jaitsi behar izaten dugu Durangora, 08:00etarako. Baina eskolak amaitzean, 15:00etan, ezin izaten dugu



Garaiko landa eremua.

joan bera batzera, gure lan ordutegiagaitik. Aitita-amamei eskerrak jasotzen dugu", diote. Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan ziurtatzen du eskola garraioa, baina ez hortik aurrerakoetan;

adibidez, Batxilergoan. Eta hortxe dago, hain zuzen ere, Garaiko familia honen egoera. "Eskola garraioa aldatzea gatz ikusten dut, baina garraio publikoa moldatzea izan daiteke irtenbide bat", iradoki dute. "Garain oso murrizta da garraio publikoa. Dagoen apurra

autobus lanak egiten dituen autoa da. Baina auto horrek ordutegi zehatz bat du eta ez du semearen eskola ordutegiekin bat egiten", gaineratu dute. Garaiko familia honek dioenez, antzeko egoera batean egondako guraso talde batek udalera jo izan du laguntza

eske. "Udalaren jarrera oso ona izan zen. Alkateagaz batu ginen, gure beharrianak entzun zituen eta Hezkuntza Sailagaz irtenbide bat topatzen ahalegindu zen. Baina Hezkuntza Sailak erantzun zuen garraio zerbitzua DBHra artekoa baino ez dela. Aldundiagaz ere ahalegindu ginen garraio publikoaren ordutegia moldatzen. Baina ezetz erantzun ziguten, hori egiteak ordutegiak nahieran moldatzeko aurrekari bat ezar zezakeelakoan. Udalak ezezkoa jaso zuen. Eta gauzak horrela daude gaur egun", azaldu du familiak.

Honako keza hau Garaitik ailegatu da, baina Durangaldeko beste landa eremuetako zenbait biztanlek antzerako egoerak bizi dituzte. "Garraio eskasia da landa eremuan bizi garenok dugun arazoetariko bat. Eta honek berdin eragiten die umeei, helduei zein adinduei. Garain, Iurretan, Berrizen, Mañarian zein Izurtzan ditugu horrelako egoerak", amaitu dute.

Zornotzako EH Bilduk kaleen garbiketaren ordenantza eguneratzea eskatu du

Horma irudiak ezabatzeak haserrea eragin du gazte mugimenduari eta mugimendu feministari loturiko elkarteetan



San Pedro kalean Saioa Agirreri elkartasuna adierazteko horma-irudia egon da.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak hainbat horma-irudi ezabatu du herriko kaleetan, eta gaiak eztabaida ekarri du osoko bilkuran. Bi dira ika-mika piztu duten horma-irudiak: bat San Pedro kalean egon da, Zelaieta parkearen

aurrealdean. Udalak mugimendu feministak Saioa Agirreri elkartasuna adierazteko asmoz egindako murala ezabatu du bertatik. Beste horma irudiak Karmen kaleko 21. atariaren buelta-koak dira, Belatxikieta elkartearen dagoen tunelean egon direnak.

Irudiak ezabatzeak haserrea eragin du gazte mugimenduari eta mugimendu feministari loturiko elkarteetan. Egoera horren aurrean, EH Bilduk kaleen garbiketari buruzko ordenantza berritzea eskatu dio gobernu taldeari. Gaizka Esparza EH Bilduko zinegotziak adierazi du herri mugimenduak "arazoak" dituela "adierazpen askatasuna erabiltzeko". Aldi berean, Anartz Gandiaga hirigintza zinegotzi jeltzaleak azpimarratu du udala "indarrean dagoen ordenantza betetzera" mugatu dela eta testuak dioena bete duela beti, "horma irudien mezu edo adierazpenak zeintzuk diren kontuan hartu barik". Bestalde, Gandiagak salatu du bere burua seinalatzen duen "hainbat kartel" zabaltzeko delatza herriaren, bere argazkiagaz. Kartelen "metodologia faxista" salatu du.

Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan, "muralak eraikinarren jabearen oniritziagaz eta beharrezko baimenak udal-txean eskatuta" egin behar dira. "Hori da bidea", gaineratu du. Zornotzako kaleko garbiketaren ordenantza 1995ekoa da. EH Bilduk testua berrikustearren eta egokitzearen aldeko jarrera berretsi du, "gizartea ordutik hona asko aldatu da eta".

Karmen eta Larrabide kaleen arteko igogailua, martxan


Obra auzotarren beharrianak lehenetsita egin dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Karmen eta Larrabide kaleen arteko igogailua erabilgarri ipini du. Ingurunea "irisgarriagoa, erosoagoa eta seguruagoa" izango da aurrerantzean, Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziak azaldu duenez. Obra berria inguruan bizi diren auzotarren adostasunagaz egin dute, adinekoen eta familien beharrianak lehenetsita. Udalak 900.000

euro inbertitu ditu proiektuan, eta, aurreratu duenez, norabide horretan jarraituko du lanean. Hor kokatu ditu, hain zuzen ere, egunotan Kaitana aldean egiten dabilzan obrak.

Sei bat hilabete barru, Kaitana plaza eta goialdeko auzoak (Santa Ana, Jauregizahar eta Andrandi) lotuko dituen igogailua erabilgarri egotea gura du Zornotzako Udalak.



Zornotzako udal agintariak igogailu estreinatu berriaren aurrean.

Durungaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Abenduaren 11n gertaturiko lur-jausi baten ondorioz, Berrizko familia bi etxetik kanpora daude

"Oso gai delikatua da, pertsonen segurtasuna bermatu behar da eta", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak



Lur-jausia Oka auzoan gertatu zen.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduaren 11n, Berrizko familia bik euren etxeak utzi behar izan zituzten lur-jausi baten on-

dorioz. 20 egunetako euriteen ondorioz, lur-jausi "handia" gertatu zen Berrizen, eta lurra Okako etxe batzuetaraino ailegatu zen.

"8:00 inguruan gertatu zen lehenengo lur-jausia. Zarata itzela entzun genuen, mendia beheruntz zetorren", adierazi dio ANBOTOri

kaltetuetariko batek. Ordubete ingurura, beste lur-jausi bat gertatu zen, eta hirugarren bat arratsaldean. Ordutik, Oka auzoko familia bi etxetik kanpora daude.

"Lehenengo lur-jausia gertatu zenean, 112ra deitu genuen eta berehala etorri ziren. Alkatea ere bertaratu zen. Hasieratik ondo portatu ziren gugaz, tratua ona izan zen", jarraitu du kaltetuak.

Harrezkero, hainbat zerbitzu dabil kudeatzen gertakari hau eta Berrizko Udala koordinazio lana egiten dabil. "Lur-jausia handia izan zen, Okako etxeetaraino heldu zen eta. Oso gai delikatua da, pertsonen segurtasuna bermatu behar da eta", adierazi zuen Orlan Isoird Berrizko alkateak azken osoko bilkuran.

David Jimeno Podemoseko zinegotziak egoera zelán da goen galdetu zion alkateari eta, alkateak jakinarazi zuenez, udalak geologo bat kontratatu zuen abenduaren 13rako, pertsonen zaintzarako eta ondasunen

segurtasunerako. "Geologoak behin-behineko txosten bat egin zuen eta, geologo horren bitartez, kompetentzia duten guztiei gomendioak helarazten zaizkie, tartean URA Agentziari", azaldu zuen alkateak.

"Geologoak lur-jausiaren sorburua Oizko azken eolikoaren inguruan egon daitekeela esan du"

Lur-jausiaren sorburua

Osoko bilkuran alkateak azaldu zuenez, Oiztik behera etorritako lur-jausia izan daiteke Okara heldutakoa. "Lur-jausiaren sorburua Oizko azken eolikoaren inguruan egon daitekeela esan du geologoak", jarraitu zuen Isoirdek.

Bestalde, egoera "ahalik eta lasterren" lehenengora bueltatzea itxaroten dutela esan zuen alkateak. "Etxeen inguruan gauza asko dago begiratzeko; azken batean, mendia zabaldu eta beherantz etorri zen eta. Guretzat ziurgabetasun handiko uneak dira eta laster dena bere onera etortzea espero dugu", adierazi du kaltetuak.

Herriko kutsadura akustikoa neurtzeko lehenengo zarata mapa egingo dute Elorrion

Elorrioko Udalak 8.000 euro ipini ditu zarata mapa egiteko. Sei hilabete izango dituzte ikerketa hori egiteko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala herriko lehenengo zarata mapa egiten hasiko da, industria-lurzoruetatik gertu dauden bizitegi-eremuetan industriako zaratak eta kutsadura akustikoa mailek duten eragina kuantifikatzeko eta baloratzeko. "Elorrion industriaren zaratagaitik eragozpenak dauden herriko eremu jakin batzuetako herritarrek kezka dute, eta zarata mapa horrek aukera emango digu eragin akustikoa neurtzeko, soinu-kalitatea hobetzeko eta presio mailak murrizteko ekintza-plan zehatzak ezartzeko", azala du Idoia Buruaga Elorrioko Udaleko alkateak.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, industriako zaradari loturiko eragozpenak konpondu ahal izatea da lanen helburua, zarata mapa eta Elorrioko trantsizio akustikoa eremurako Ekintza Planaren proposamena eginez.

Neurketak hainbat tokitan

Neurketak Tecnaliak eta Acusmediak egingo dituzte, Metal Smelting, Besaide eta Eroskiren Zentralaren inguruan. Neurketa horiek momentu eta iraupen

ezberdinekoak izango dira. Neurketa batzuk 24 ordukoak izango dira; beste batzuk, ostera, ordubetekoak. Ordubeteko neurketa horiek goizez, arratsalde zain gaez egingo dituzte.

Aurreikusitako zarata mapa egiteko, Elorrioko Udalak 8.000 euro ipiniko ditu eta Tecnaliak eta Acusmedia enpresek 6 hilabeteko epea izango dute lanak egiteko.



Elorrioko Labakua kaleko argazkia.

Atxondon, memoria entrenatzeko ikastaroak antolatu dituzte otsailerako eta martxorako

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Adinekoen Zerbitzuak eta Durangaldeko Mankomunitateak antolatuta, memoria entrenatzeko ikastaroak egingo dituzte Atxondon. Atxondoko pertsona nagusien zentroan egingo dituzte, otsailean eta martxoan. Zazpi astelehenez emango dituzte eta lehenengoa otsailaren 7an izango da.

Ikastaroak 17:30ean hasiko dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute.

Memoria entrenatzeko ikastaroetan plaza mugatuak daude; izena ematea beharrezkoa da

Memoria entrenatzeko ikastaroetan plaza mugatuak egongo dira, eta, beraz, izena ematea beharrezkoa izango da. Izenematea 94 620 05 46 telefono zenbakira deituta edo terceraedad.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzita egin daiteke.

Egin zaitez Anbotoren lagun



Orain, **%30 merkeago**

* Errenta aitorpenean
kenkaria jaso gura baduzu,
bete formularioa edo
deitu 946 816 558



Epe muga: otsailak 17a

Abendañotar leinukoena litzatekeen dorretxe baten arrastoak aurkitu dituzte Otxandioko indusketetan

Plazako indusketetan, besteak dorretxea inguratuko zuten lubanarro eta zurezko hesi baten aztarnak aurkitu dituzte ikerkalariek

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko plaza eraberritzeko lanei ekin aurretik, indusketak egin dituzte zoruaren azpian antzinako zer arrasto dagoen aztertzeko, eta dokumentatzeko eta aurreragoko indusketa batzuetan planteaturiko hipotesiak konfirmatzeko ez ezik, arrasto berri batzuk mahai gaineratzeko ere balio izan dute.

Indusketa hauetan aurkituriko arrastoei 2015ean han ondoan egindako beste batekoak gehituta, ondorioztatu daiteke espazio hartan dorretxe bat egon zela. Esaterako, beste aztarna batzuen artean, lubanarro bati zegokion zuloa aurkitu dute, seguruenik XIV. mendean egindakoa, sakoneran hiru metro eta zabalera bost metro dituen. Lubanarroa sasoi batean dorretxeak inguratzen zituen zulo luzea da. "Ez zegoen zuloaren berririk. Hasieran, kostatu egin zitzaigun esku artean zer geneukan jakitea. Baina dokumentazioa eta abar aztertuta, horrelako zulodun dorreak badaudela ikusi genuen", azaldu du EHUko irakaslea eta indusketako zuzendaria den Belen Bengoetxeak. Orain urte batzuk, antzerako zulo bat induskatu zuten Arriorriagan.

Zuloaren inguruan poste zuloak ere aurkitu dituzte. "Zurezko hesi batenak lirarteke, ingurua gehiago babestu edo markatuko luketena", dio Bengoetxeak.

Dorrearen aldeko hipotesiak iturri idatzietan ere badu sostengua. XV. mende amaieran Lope García Salazar jaunak idatzitako *Bienandanzas e fortunas* obrak bandoen arteko gerretako askotariko



Otxandioko plazan egiten duten hirugarren indusketa da, 2015eko eta 2019koen ondoren. Irudian, ikerlariak lanean iazko abendura arte iraun zuten indusketetan.

gatazkak jasotzen ditu. Izan ere, Behe Erdi Aroan leinu handien arteko gizarte-liskar bortitzak izan ziren, oinaztarren eta ganboatarren artean, besteak beste. Leinu bakoitzak bere kideak edo aliatuak zituen. García Salazar bera oinaztarren aldekoa zen. Bada, liburuan kontatzen du oinaztarren aldekoa ziren Butroi-Muxika leinukoek Otxandioko dorre bat setiatu zutela eta erasoaren ondorioz dorrea eraitsi egin zutela. Gainera, dorrea 'oso gotorra' zela dio, indusketetan aurkituriko lubanarro handiari egoki lotzen zaion definizioa. "Beraz, hor baditugu datu batzuk indusketetan

aurkiturikoari lotzen zaizkionak", adierazi du Bengoetxeak. García Salazarren kronikak beste datu baliotsu bat ere badakar: eraso egin zioten dorrea Abendaño leinukoa zen, ganboatarren bandokoa.

Ondoren, eraitsitako dorrea berregin egingo zuten seguruenik, eta XVII. mendera arte iraungo zuen. Izan ere, XVII. mendeko dokumentu batzuek abendañotarren dorretxe bat aipatzen dute. "Beharbada ez zen hain eraikin garaia izango, etxe normalagoa izango zen. Baina ordura arte zutik iraun zuen, modu batean edo bestean", azaldu du Bengoetxeak. Ondoren, seguruenik

mende horren amaieran estali egingo zuten zuloa eta apurka-apurka gaur egungo forma hartzen joango zen plaza ingurua. "Beste hirigintza fase bat hasi zen", dio Bengoetxeak.

X. mendeko herrixka

Espazio hartan, dorretxearen aurretik, herrixka bat zegoen. Orain urte bi egindako indusketetan, horren arrastoak agertu ziren eta oraingoan ere bai. Orduko etxoletako poste zuloak aurkitu dituzte, "asko eta oso ezberdinak. Okupazioa oso intentsiboa izan zela adierazten du horrek", kontatu du Bengoetxeak. Datazio radiokarbonikoei es-

kerrak jakin dute espazio hartako lehenengo okupazioa X. mendekoa dela. Etxolen posteak, ostera, XI. mendekoak dira. "Sorrera X. mendekoa izango zen, eta benetako garapena XI. mendetik aurrerakoa".

Beraz, XIII. mendean Otxandio hiribildu bihurtu aurreko arrastoak dira. Dena dela, zehaztu behar da hiribildua iparralderago sortu zela, hau da, Andikona alderantzago.

Edozelan ere, herrixka horrek bere eliza izango zuen. Ikusita gaur egungo Santa Marinaren kokapena zein den, hipotesia da egungo elizaren azpian leudekela jatorrizko eliza zaharragoaren arrastoak.

Jaurlaritzaren esanetan, ez dago data zehatzik Trabakuko radarra martxan ipintzeko

Martxan ipini aurretik, oraindino "lan teknikoak" falta dira egiteko, Eusko Jaurlaritzatik adierazi dutenez

MALLABIA • J.D.

Ibilgailuen abiadura kontrolatzeko helburua duen Trabakuko radarra ez dago martxan oraindino. Horrelaxe baieztatu dute Eusko Jaurlaritzako iturriek. Kamerak ipinita daude errepidearen alde bietan, baina "lan teknikoak" egitea falta da oraindino. "Horregaitik, ez dago data zehatzik radarra

martxan ipintzeko", adierazi dute Jaurlaritzatik. Falta diren lanak amaitzen direnean, radarraren probaldia hasiko dute; hau da, epealdi batean martxan egongo da baina ez dute salaketarik edo isunik ipiniko. Azkenik, radarra ofizialki martxan ipiniko duten abisua Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute.



Trabaku gaineko istripu kopurua gutxitzea izango da radarraren helburua.

Izurtzako Udalak erabilera anitzeko eraikinaren ondoan dagoen landa garbitu du

IZURTZA • J.D.

Erabilera anitzeko lokalaren parean, bidearen bestaldean, udalaren jabetzakoa den lursail bat dago sasiz eta sastrakaz betetzen joan dena denboragaz, eta udalak garbitu egin du herrigunea txukun mantentzeko helburuagaz. Etorkizunean, lur sail horretan etxebizitzak egitea da udalaren helburua. Iraganean ere ahaleginu izan dira hor bidezlekuak egiten, baina oraingoz ezin izan dute egitasmoa aurrera eraman.

Mañariko Hontza museoan ikusgai dagoen bildumari 500 ale gehitu dizkiote erakusgela berri biri eskerrak

Anfibio, ugaztun, narrasti eta, batez ere, hegazti espezieak bildu dituzte, Europakoak gela batean eta exotikoak bestean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Hontza museoari areto berri bi gehitu dizkiote. Erakusgela berrietan, askotariko anfibio, ugaztun, narrasti eta, batez ere, hegazti espezieak bildu dituzte, Europakoak gela batean eta exotikoak bestean.

Geletan gehitu dituztenekin, museoko aleak 1.500 izatetik 2.000 izatera pasatu dira, hau da, orain arte baino 500 gehiago, ohar batean azaldu dutenez. Ale horiek

Geletan ipinitako aleekin, ikusgai dauden aleak 1.500 izatetik 2.000 izatera pasatu dira

guztiak bederatzi gelatan eta beste erdi batean banatuta daude. Gelarik gehienak animalia erreinuko aleek osatzen dituzte; ornogabeek (Poriferoak, krustazeoak...) eta ornodunek (ugaztun, hegazti, anfibio, narrasti eta arrainak). Bada beste gela bat, 'Kirikiño' izenekoa, zeinetan geologiagaz lotuta dauden bildumetako aleak dauden ikusgai, hala nola fosilak, munduko hareak, arroak eta mineralak. Azkenik, beste gune batean landareen eta onddoen erakusketa dago.



Gaur egun bederatzi gela eta erdi ditu Hontza Museoak.

Erakusketa itsastarra

Bestalde, 2022ko irailera arte ikusgai jarraitzen du itsasoko askotariko animalien hezurrekin osaturiko erakusketak. Plentziako AMBAR kontserbaziorako eta ikerketarako elkarteagaz elkarlanean antolatutako erakusketa da.

Bitrina batean, itsas txakur grisaren eta mazopa arruntaren

hezur batzuk eta honako hiru animalien gazeurrak daude: kare-tarena eta laut dortoka espezieena,

Gainerako gelarik gehienak animalia erreinuko aleek osatzen dituzte; ornogabeek eta ornodunek

eta itsas txakur grisarena. Beste bitrina batean, cuvier moko-balearen gazeurra eta orno bat, eta zere txiki balea espeziearen orno bat eta hainbat aho-bizar dago. Balea espezie txiki honek —8-10 metro— 250 bat bizar pare izaten ditu ahoan. Bere elikadurarako beharrezko tresna da, ez dauka haginik eta.

Autobus geltokia lekuz aldatuko dute Maspeko etxeak eraiki arte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Maspe kaleko autobus geltokia lekualdatu dute, Fundigel bota ondoren geraturiko orubean etxeak eraikitzen dabilzalarako. Paduretako aparkalekurantz 100 metro atzeratu dute geralekua. Bizkaibuse honako autobus lineei eragiten die aldaketak: Elorriora doazen A3911 eta A3923 autobus lineei, Eibarrera eta Ermuara doazen A3912 eta A3924 autobusei, eta Ondarroara doan A3915 lineari. Durangon gelditzen den A3933 autobusari ere eragiten dio lekualdaketa.

Maspeko urbanizazio lanen barruan 84 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita

Urtarrilaren 31tik aurrera, behin-behineko geltoki horretan geldituko dira autobusak Maspeko urbanizazio lanak amaitu arte, Bizkaibusek jakinarazi duenez. Guztira, 84 etxebizitza eraikiko dituzte Maspen. Lursailaren zati bat udalarena da eta hor 10 etxe egingo dituzte. Gainerako lursaila zati bitan dago banatuta, lurjabe bigaz. Hor 74 etxe eraikiko dituzte.

Aurrekontu parte hartzailearen prozesua hasiko dute Mañarian

Eskuorri bat eta galdetegi digitala atera dituzte; otsailaren 7tik 20ra artekoa da proposamenak aurkezteko epea



Otsailaren 10ean sormen saio bat egingo dute liburutegi zaharrean.


MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak prozesu parte hartzailea hasiko du herritarrekin, aurrekontuetako 14.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko. "Herritarren beharrianak asetzera, herria hobetzea eta bizirik mantentzeko proposamenak jasotzea da helburua", azaldu dute udaletik.

Mañarian erroldatuta dauden 18 urtetik gorakoei zabalik dago prozesua. Proposamenak aurkezteko, eskuorri bat eta galdetegi digitala atera dituzte. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 7an hasi eta hilaren 20an amaituko da.

Saio presentzial bat ere egingo dute, sormen saio bat. Otsailaren 10eko egunean izango da, 19:00etan, liburutegi zaharrean. Bertan, besteak beste, ekarpenak egiteko aukera egongo da.

Ondoren, jasoriko ekarpenak aztertu eta zerrendatu eta gero, martxoan beste prozesu bat abiatuko dute lehentasunak markatzeko. Aurrez aurreko beste saio bat ere egingo dute.



GARAIKO UDALA

GARAÍ ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20· 48200 Garai
udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

GARAIKO UDALAK LURSAIL BAT JARRI DU SALGAI MILIKUA EREMUAN

Garaiko Udalak bi lursail ditu Milikua eremuan eta horietako bat salgai jartzea erabaki du. Familia bat bizitzeko aukera ematea da salmentaren arrazoia. Izan ere, Garain ez dago eraikigarriak diren lursailen aukera handirik.

Ezaugarriak:

- Lursailak 3.552,05 metro koadroko azalera dauka.
- Lursailak, 437 metro koadroko gehieneko eraikigarritasuna dauka.
- Lursailaren gutxienezko prezioa 82.387,05 eurokoa da.
- Interesdunek otsailaren 28ko 15:00ak arte egin ahaliko dituzte eskaintzak. Horretarako, bitarteko elektronikoak baliatu behar izango dituzte.

Edozein gisaz, xhetasunak eskatu, zalantzak argitu edo argibideren bat behar izanez gero, interesdunek Garaiko Udalera jo dezakete.

*Garain, 2022ko urtarrilaren 17an
Alkatea*



Udala Abadiñoko bide publikoen zerrenda eguneratzen hasi da.

Ikerketa bat ipini dute martxan Abadiñoko bide publikoen zerrenda eguneratzeko

Abadiñoko Udalak abadiñarren ekarpenak jaso gura ditu bide publikoen txosten teknikoak egin ahal izateko

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko Udalak ikerketa bat ipini du martxan herriko bide publikoen zerrenda eguneratzeko. Landa eremuetako gatazketarako tresna administratiboak edukitzeko helburuagaz agindu du ikerketa udalak. "Titulartasun publikoko bideen zerrenda edukitzea da helburua, indarrean dagoen araudiaren eta legediaren menpe, informazio deskriptibo egunera-

tuagaz, administrazioen arteko eskumen-arazoak edo auzo-liskarrak saihesteko", esan dute udaletik. Ingeniería Senda enpresa arduratuko da ikerketa egiteaz, eta hasi eta hamar hilabetera amaituko duela aurreikusten du udalak.

Txosten teknikoak egiteko, abadiñarrek ekarpenak egitea gura du udalak. Horretarako, 656 703 210 telefono zenbakia ipini du erabilgarri.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Merkatu plaza

Durangar guztiok ikusten dugu merkatu plaza pixkanaka-pixkanaka itzaltzen ari dela. Larunbatetan jende gehiago ikus daiteke, batez ere base-ritarren postuetan, baina barrukoa hiltzeko zorian dagoela esan dezakegu. Errealitatea da 'Ortutik plazara' ekimenak ez duela erosle berririk erakarri.

Jakin badakigu merkatu plazaren berronertzeak hausnarketa eta alde aurreko lan handia behar duela plaza osoari irtenbiderik onena emateko. Udalak urteak daramatza konponbiderik ez dakarten kontratuak egiten. Hona hemen adibide argi batzuk:

-2019. urtearen hasieran: merkatu plazaren estrategia-re diseinuen kontratua egin zen (15.000 €-koa) eta emaitza 2020ko martxoaren 11n aurkeztu zen.

- 2020ko irailean: merkatu plazako erabilera, esperientziak eta euskarri fisikoak egokitzeko diseinuen kontratua egin zen (96.800 €-koa).

Azkenik, Durangoko hornidura-merkatuko postuen emakida, honekin 19tik 5 postu betetzea baino ez zen lortu. Logikoena zen, plaza gaur egun zein egoeratan dagoen ikusita.

Seguraski, plaza berriaren espazioaren eta euskarri fisikoaren diseinuen proposamena eta egin beharreko inbertsioaren aurrekontua 2022aren amaieran edo 2023aren hasieran iritsiko dira; kasualitatez (edo ez), legegintzaldi honen amaieran. Erraza da esatea merkatu plazaren aldeko apustua egiten dugula, baina efektu-kolpeek eta propaganda-argazkiek ez dute arazoa konponduko.

Durungaldea asteen

'Katzue' eta Bellon gogoratzeko ekitaldia egingo dute Elorrioren, otsailaren 5ean

Elorrio | 1997an Alcalá Mecon (Madril, Espainia) hildako Jose Maria Aranzamendi 'Katzue' eta 2014an Puerto de Santa Mariako (Andaluzia, Espainia) kartzelan hildako Arkaitz Bellon gogoan izateko ekitaldira deitu du Egiari Zor fundazioak. Ekimena Elorrioko plazan izango da, 13:00etan. "Egia, aitortza, justizia eta erreparazioa zor dizkiegu", azaldu du Egiari Zor fundazioak.

15.000 euro bideratu dituzte saltoki berrien irekiera eta ekintzailatza bultzatzeko

Elorrio | Herriko saltoki txikiak suspertzen jarraitzeko asmoagaz, Elorrioko Udalak 15.000 euroko partida ekonomikoa onartu du, bigarren urtez. Udaletik azaldu dutenez, ekintzailak eta belaunaldien arteko errebua sustatzeko eta babesteko laguntza programa da. Interesdunek urte guztia izango dute eskaera egiteko.

Mankomunitateak erretzeari uzteko doako ikastaro bi antolatu ditu

Durungaldea | Mankomunitateko Adikzioen prebentziorako zerbitzuak erretzeari uzteko doako ikastaro bi antolatu ditu. Bata goizez izango da, eta bestea arratsaldean. Martxoaren 3an ekingo diete ikastaroei, eta bederatzia saio izango dira guztira.

Ikastaroan izena eman gura duenak 94 620 05 20 telefono zenbakira deitu dezake edo prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzi dezake.



EH Bilduk zinegotzien dietei buruz aurkezturiko errekurtsua onartu dute Zaldibarren

Zaldibar | Zaldibarren bizi ez diren zinegotziek kilometraje dietak "txarto" kobratzen zituztela salatzen zuten EH Bilduk 2020ko uztailaren. "Beti kilometro dietak kobratzen zebiltzan, nahiz eta garraio publikoa erabili, besteak beste", dio EH Bilduren oharrak; salaketa horren ondorioz, zinegotzi batzuek dirua itzuli behar izan zuten.

2021eko abenduan, kilometraje dieta guztiak ordaintzea erabaki zuten osoko bilkurak, "ibilgailu pribatua zein garraio publikoan" egindakoak. Egun batzuk geroago, ostera, EH Bilduk errekurtsua ipini zuten. Ondorioz, "kontrola areagotuko duela" azaldu du EH Bilduk

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

DURANGALDEAN OSASUNAREKIN,
ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON
informazio gehiago 946 217 902 telefono zenbakian

BURUARI KLIK!



BIKOTEAK EGIN

Bazara gai bikote guztiak topatzeko?





Zein itzal dagokio alboko irudiari?

ITZALAK




GURUTZEGRAMA



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan eta moztu ezazu marratxoetatik kareta hau.





'Conviction'

MUSIKA ZALDIBAR :: Otsailak 5

Worth It taldeak bere hirugarren lana aurkeztuko du Zaldibarren

Worth It taldeak bere azken lana aurkeztuko du Zaldibarko Gaztetxean, zapatuan. Taldeak azaroan kaleratu zuen bere hirugarren lana: *Conviction*. Hala ere, Odei Arrizabalagak, Biken-di Fernandezek eta Sergio Devesak osaturiko taldeak orain arte ez du aukerarik izan diskoan baturiko abestiak oholtzan aur-

kezteko. Kontzertua 19:00etan hasiko da.

Hirugarren lan honen grabazioa 2020ko azaroan eta abenduan egin zuten, Txosse Ruizegaz, honek Cerdanyola del Vallésen (Herralde Katalanak) duen Wheel Sound estudioan; masterizazioa Ultramarinoseko Victor Garciaekin egin du.

Otsailaren 4an

BERRIZ antzerkia
'Aioka' (Zurrunka Teatro),
17:00etan, Kultur Etxean.

Otsailaren 4tik 7ra bitartean

ABADIÑO kirolak
Idi probak, probalekuan. 4an eta 5ean, 21:00etan. 6an, 18:00etan. 7an, 17:00etan.

Otsailaren 5ean

DURANGO antzerkia
'eRRe. Aldarri bat bertsoz',
19:00etan, San Agustin kulturunean. Haizea Arana, Leire Vargas, Aner Euzkitze eta Oihana Arana igoko dira oholtzara, Edurne Azkarateren zuzendaritzapean.

Otsailaren 6an

OTXANDIO bisita gidatua
Otxandioko plazako indusketetara bisita gidatua, 11:00etan. Belen Bengoetxeak gidatuta daude eta beharrezkoa izango da alde zuretik izena ematea. Horretarako, idezkaritza@otxandio.eus helbidera idatzi daiteke edo 945 45 00 20 telefono zenbakira deitu.

Otsailaren 7tik 19ra arte

ZORNOTZA erakusketa
'Nekazaritza ekologikoarekin dena hobetzen da' (Ekolurra), Zelaieta zentroan. Panelak eta azalpen bideoak osaturiko erakusketa.

Otsailaren 8an

ABADIÑO irakurzaletasuna
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Mikel Antzak gidatuta.

Otsailaren 10ean

DURANGO antzerkia
'Nekatutak' (Antton Telleria), 19:00etan, San Agustin kulturunean.

ELORRIO irakurketa
Ingeleseko irakurketa kluba, 19:45ean, liburutegian. Hile birik behin, eguenero, Paul Attardek dinamizatuta. Liburutegian eman daiteke izena, edo 946 032 032 telefono zenbakira deituta edo liburutegi@elorrrio.eus posta elektronikora idatzita.

ZORNOTZA musika
The Cinelli Brothers,
20:00etan, Zelaieta Zentroan.

Otsailaren 11n

DURANGO ate irekiak
Batukandra, Durangoko Batukada Feministaren ate irekien saioa. Izena emateko, otsailaren 4a baino lehenago idatzi behar da helbide honetara: batukandra@gmail.com.

DURANGO berbaldia
'Mugak guztiontzat dira'.
17:00etan, Arrupe Aretoan. San Jose Jesuitak ikastetxeak antolatuta.

ELORRIO antzerkia
'Semea pixka bat motelago dabil bakarrik' (Ttanttaka Konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

Otsailaren 12an

ATXONDO ikastaroa
Antzerki inprobisazio ikastaro intentsiboa (Kancaneo) + bazkaria. Arrazolako Amillena bentan. Ikastaroa, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era izango da. Izena emateko, amillenaarrazola@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo 94 627 89 07 telefono zenbakira deitu.

BERRIZ antzerkia
'Lehendakari Gaia' (Txalo Produzioak), 19:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA musika
'Peru Krokodiloa', 17:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 13an

DURANGO antzerkia
'Mi hijo solo camina un poco más lento' (Ttanttaka konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturunean.

Otsailaren 20ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Mari Puri Herrerogaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak' (Mari Puri Herrero), Arte eta Historia Museoa.

Otsailaren 25era bitartean

ELORRIO erakusketa
'Exodoa: Hondakinak aterpe' (Euskal Fondoaren argazki erakusketa eta dokumentala), Iturri kultur etxean. Erakusketak Ankarako erasoaldi historikoen ondoren kurdu siriarrak bizi duten errealitatea erakusten du.

Otsailaren 26ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
Itsasne Zubiriren margolanak eta eskulturak, Zelaieta Zentroan.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• *El callejón de las almas perdidas*
barikua 4: 19:30
domeka 6: 19:00

:: Durango
ZUGAZA

• *El brindis*
barikua 4: 19:30/22:00
zapata 5: 19:15/21:15
domeka 6: 17:30/19:30
astelehena 7: 18:00/20:15
martitena 8: 18:00/20:15
eguztana 9: 18:00/20:15

• *Moonfall*
barikua 4: 19:30/22:00
zapata 5: 17:00/18:00/20:30
domeka 6: 17:00/19:30
astelehena 7: 18:00/20:15
martitena 8: 18:00/20:15
eguztana 9: 18:00/20:15

• *Belfast*
barikua 4: 19:30/22:00
zapata 5: 19:15/21:15
domeka 6: 19:30
astelehena 7: 18:00/20:15

• *Tengamos la fiesta en paz*
zapata 5: 17:00
domeka 6: 17:00

• *Tailor (Viridiana proiektua)*
martitena 8: 19:00

• *Macbeth (Opera)*
eguztana 9: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA

• *No somos nada*
barikua 4: 20:00
zapata 5: 20:00

• *Noche de fuego*
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:00

• *Canta 2*
domeka 6: 17:00

:: Zornotza
ARETOA

• *Cerca de tí*
barikua 4: 20:00
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:15

• *Clara y la navidad en la granja*
domeka 6: 17:00

• *Un segundo*
martitena 8: 20:15

“Gure helburua hezkuntza arloan psikologia eta garapen emozionala lantzeko materiala sortzea izan da”

Usue Egia durangarrak 'Nik esaten dudalako' liburua kaleratu du oraintsu, Ana Arribillagaz batera; Denon Artean argitaletxeagaz kaleratu dute



**Usue Egia
Fernandez de Retana**

Ilustratzailea

DURANGO | 1992

Durangoko Azokara helduko ote zen. Editoreak ere asko lagundu digu, nora jo jakiteko; une batzuetan, beharbada denbora gehiegi emango nuen perfekzioaren bila, detaileak zuzendu guran, eta esaten zidan praktikoagoa izatea komeni dela. Gero, liburua esku artean edukitzea itzela da.

Zelan definituko zenuke zure estiloa?

Nire estiloa batez ere azken urteetan garatu dudala esango nuke. Nerabezaroan alboratuta nuen arren, betidanik marraztu izan dut. Nire ideiak erakusteko erabiltzen nuen marrazketa; konturatu nintzen hobeto komunikatzen nintzela irudiekin berbekin baino. Horrela, geroago eta gehiago marrazten hasi nintzen; inkontzienteki estilo moduko bat garatu nuela ikusi nuen, hanka eta beso luzeekin. Aitak ere egiten zituen horrelako pertsonaiak, sudur handi eta luzeekin adibidez, eta beharbada hortik zeozer jasoko nuen. Seguru erreferentzia gehiago ere baditudala, jakina, baina ez dira neuk bilaturikoak. Horrez gainera, nire materialik gehiena zuri-beltzean egiten dut, eta gero digitalizatu. Orain, adibidez, nire lehenengo nobela grafikoa izango dena lantzen nabil, eta bertan, adibidez, istorioa eta trazoa dira nire lehentasuna; kolorea albo batera utzi dut. Denon Artean argitaletxeagaz kaleratuko dut hau ere, eta udazkenean publikatzea aurreikusten dugu.

Tira komikoak ere publikatzen dituzu.

Konfinamenduan eguneroko bat egiten hasi nintzen eta esango nuke horrek ere lagundu zidala estiloa topatzen. Askotan, sentimendu horiek paperean marraztuta eta idatzita hobeto ulertzen dira.

Arte Ederretako arantza barruan nuen eta uste dut baliagarria izango zaidala bide honetan. Aktibo egoteko lagungarria zait eta horrela gehiago sortzen dut. Ingurukoek esaten didate konfort eremutik irteteko, baina, aldi berean, unibertsitateko lanak neure estiloagaz egiten ahalegintzen naiz.

ILUSTRAZIOGINTZA • ARITZ MALDONADO
Ana Arribillagak eta Usue Egia 'Nik esaten dudalako' ilustrazio liburua kaleratu dute; Egia ilustrazioez eta testuez arduratu da. Durangarraren lehenengo liburua da. Arte Ederretako gradua ikasten hasi da ikasturte honetan, aurretik ikus-entzuzko gradua egin eta gero. "Modu autodidaktan ikasi ditudan kontuei oinarria jartzeko lagungarria zait". Iaz, 'Durango Sor(tzaileen) leku' beka irabazi zuen eta udazkenean publikatzea aurreikusten duen komiki bat lantzen dabil. Umorezko tirak ere publikatzen ditu, Instagram sare sozialeko '@ueguia' kontuan.

Zer da 'Nik esaten dudalako'?

Ana Arribillaga nire irakaslea izan zen. Psikologiako autokontzeptuaren eremuko hainbat gai tratatzen zuen, eta niri asko gustatzen zaidan alorra da. Hain zuzen ere, master amaierako lanean ere autokontzeptuaren gaia landu

nuen komikiaren bitartez, eta neure espezialitatea ere hortik bideratzea gustatuko litzaidake. Egiten ditudan aurkezpenetan marrazkiak erabiltzen ditut beti, esan nahi dudana hobeto azaltzeko, eta, hain zuzen ere, horixe zen berari

Nire materialik gehiena zuri-beltzean egiten dut, eta gero digitalizatu egiten dut

gustatu zitzaiona, nire marrazkiek zenbat transmititzen zuten. Liburu bat idazteko asmoa zuela komentatu zidan eta ilustrazioak egiteko aukera proposatu zidan. Hortik aurrera, elkarlanean hasi ginen. Egunerokotasunean agertu daitezkeen zortzi egoera proposatzen ditu liburua; beldurra,

ardura eta halako gaiak jorratu gura genituen, eta egoera horiek abiapuntu hartuta zortzi istorio ditu liburua.

Hezkuntzan ez dago ia materialik psikologia eta garapen emozionala tratatzen duenik, eta liburu honek zubi lana egin dezakeela uste dugu, ikastetxeetan eta etxean gai hauei buruz gehiago berba egiteko. Azken finean, nork ez du entzun edo erabili 'Nik esaten dudalako' etxean? Tradizio mugatzaile hori apurtzeko zubia ere izan daiteke liburua.

Lehenengo liburua duzu. Zelako esperientzia izan da?

Erronka handia izan da, ez ilustratzaile lez bakarrik, baita bestela ere, hamaika kontu burokratiko egin behar izan dut eta. Askok ikasi dut prozesu osoan zehar, egile eskubidei buruz, editorialen funtzionamenduari buruz eta abar. Urte luze eta gogor bi zan dira, baina probetxuzkoak. Ilustratzaile lez egin

gura dudana bidean ere oso lagungarria izan zait. Askok disfrutatu dut.

Plazera izan da lan hau egitea, marrazteaz gainera gaia oso interesgarria delako niretzat. Oso lotuta nago autoestimua eta halako gaietara, eta, hori dela eta, bu-

Aitak ere egiten zituen horrelako pertsonaiak, sudur handi eta luzeekin adibidez

ru-belarri aritu naiz. Egoeretan planteaturikoa marrazkien eta testuaren bitartez zelan transmititu; asko landu dut hori. Nire lehenengo liburua da, Anarena ere bai, eta denbora asko eskaini behar izan diogu. Askok ikasi dugu eta prozesu polita izan da, gogorra ere izan den arren. Azken hile bietan urduri egon gara, aparte, liburua

“Askotan, detaile txikietan gauza handiak aurkitu daitezke”

Itsasne Zubiriren erakusketa otsailaren 26ra bitartean egongo da ikusgai Zelaieta Zentroko areto nagusian

MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO
Itsasne Zubiria sondikoztarraren erakusketak natura, kolorea eta mugimendua batzen ditu. Hamahiru oleok, hiru akrilikok eta eskultura batek osatzen dute bilduma. Izan ere, artista polifazetikoa da Zubiria. Erakusketa otsailaren 26ra arte egongo da ikusgai, Zornotza aretoan.

Zer erakutsi gura izan duzu erakusketa honeguz?

Margolanetan paisaiak ikusi daitezke. Naturan oinarrituriko erakusketa bat egin gura nuen, kolore piloagaz eta naturan sortzen den mugimendua erakusten duena. Zenbat eta kolore gehiago, orduan eta bizitza gehiago erakusten dela uste dut, eta garrantzitsu irizten nion horri, une honetan gizartea triste eta apal dagoela iruditzen zait eta. Naturagaz hartu-emanetan gaudenean, mendian edo hondartzan, hobeto sentitzen gara, eta uste dut garrantzitsua dela gaur egun gauza

alaiak erakustea. Nik gai gogoragoak ere jorratzen ditut, baina oraingoan zeozer alaiagoa egin gura nuen, azken urte biak oso gogorak izaten ari direlako. Jendea ez dut oso animoso ikusten.

Naturak aukera ematen dit beste modu batera lantzeko; sortzen dituen bolumen eta formak desberdinak dira

Naturak, gainera, aukera ematen dit beste modu batera lantzeko ere; bertan sortzen diren bolumen eta formak desberdinak dira. Zornotzan ikusi daitekeen eskulturak naturan ere geometria dagoela erakusten du. Hiru petaloko lore bat da, barruan bikote bat musukatzen gordetzen duena. Askotan, detaile txikietan gauza handiak aurkitu daitezke; hori adierazi gura nuen.



Pandemiako itxialdiari erantzun lez sortu dituzu erakusketako lanak?

Ez, ez erantzun lez, baina izan zitekeen. Konfinamendutik irten genuenean, natura jendez lepo zegoen, baina orain berriro ere lehenengo ohiturak (errutinak, joerak?)

berreskuratzen gabilta. Naturan erantzun piloa lortu dezakegu eta horiek beti dira positiboak guretzat. Horregaitik sartzen dut kolore asko nire margoetan. Geroago eta teknologikoagoak gara, eta hor ez dugu erantzunik topatuko.

Zelako garrantzia dute koloreek zure lanetan? Protagonismo handia dute zure ibilbidean.

Nire lan guztietan agertzen da kolorea. Intentsitatea bilatzen dut koloreetan; izan ere, bizitza adierazteko modu bat da kolorea.

Gai librean

Zuri

Sekretutxo bat kontatzera natorkizu. Anbotoko kultura atariko nire lehen zutabea eskaini dizut. Ezin izan dut aguantatu.

Ba al dakizu Eider ere badabilela hemendik bueltaka? Gustura hartuko nuke kafea zurekin guk idatzitakoak konpartitzeko. Tira, ados, *karajillo* bat agian. Imajinatzen zaitut udaletzeko plazako terraza erraldoian, esku batekin kizarari eusten eta bestearekin zigarroa mugitzen, zupadaz zupada keak zure ahoan ostatu hartzen duen artean. Zu hil eta gero erretzeari utzi nion, baina piztuko nuke *fiti* parea eztabaidaren truke. Beti egiten zenidan gauza bera: kafea eta zigarroarekin lurrintzen ninduzun sortutakoari buruz solasteko.

Otsailaren 4a da gaur, lau urte bete dira hil zinenetik. Zure heriotzaren



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Kultura (beharbada, batez ere), oholzatik haratago doan zerbait dela irakatsi zenidalako

Bizitzari buruz idaztea erabaki dut beraz, hala egiten zenuelako zeuk ere

biharamunean, Goya saria jaso berri-tan, Enekok hau idatzi zizun: “... Txotxe, egingo dudun gauza bakoitzean eta esango dudun hitz bakoitzean entzungo zaitut” eta lehengusuari lapurtu dizkiot hitzok, ez zaidalako zu omentzeko modu horberik okurritzen.

Entzutun zaitut antzoki batera sartzen naizenean, Mikel Laboaren kantuetan, bertso saioetan. Baita furgonetan bidaiatzerakoan, oinutsik hareta zapaltzen dudanean, Logroñoko espesxean, lankideekin bazkaltzera noanean, bizikleta baten gainean jartzen naizenean, goizetako kafea usaintzen dudanean, autopistan “Elgoibar” irakurtzen dudanean eta bazkalostean (oso noizean behin) txupitoak edaten ditudanean. Kultura (beharbada, batez ere) oholzatik haratago doan zerbait dela irakatsi zenidalako.

Bizitzari buruz idaztea erabaki dut beraz, hala egiten zenuelako zeuk ere.

Testigua hartzen dizut Txotxe, hainbestetan zure berbekin jantzi zenuen gorputza edertzen saiatuko naiz; sarritan irakurri nizun zutabearen eraikuntzan jarraituko dut (beharbada, batez ere), zutabe orok bezala eutsi ninduzulako.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Urterik urtera, geroago eta gehiago dira Elorrioren errugbia probatzera animatzen diren ume eta gazteak. Toki askotan gutxiengoa den edo batere presentziarik ez duen kirolak indarra hartu du Elorrioren. Zelaikit haratago herri osora zabaldu den fenomeno da.

Elorrio Rugby Kluba 1981eko otsailaren 23an sortu zuten. Beraz, ez da atzo goizean sorturikoa: hil honetan, 41 urte beteko ditu. Hasierako haien eta euren ondorengoen lana ez zen nolana hikoia izan: arrotza zen kirol bati herrian tokia egitea eta denboran bizirik irautea. “Lan itzela egin zuten. Euren gaitik gaude bizirik eta euren gaitik du klubak gaur egun duen indarra”, goraipatu du Bingen Azkarragaurizar zuzendaritzako kide eta jokalaria. Etapa hark bere loraldiak izan zituen bai gizonen eta bai emakumeen taldeetan. Baina oraindik azken aupada bat falta zen herrian erreferente izatera heltzeko, eta bide horri ekin zioten orain hamarkada bat inguru. “Klubeko egiturak sendotu, berritu eta

Elorrio Rugby Taldea, herrian izaera eta presentzia irabazi dituen ahalegin kolektiboaren emaitza

Azken hamarkadan etengabe gora egin du herrian errugbian dabilzan jokalarien eta gazteen kopuruak



Emakumeen taldea berreskuratzea izan da klubaren azken urteetako lorpenetarikoa bat.

“Hau guzti hau ez litzateke posible izango kluba osatzen duten denen inplikaziorik barik”

funtzioak gehiago zehaztu ziren”, dio Azkarragaurizarrek. Koherentzia gaurkotu hori izan zen gerora etorriko zenaren hazia. Horregaz batera, gaur egungo egoerara heltzeko, beharrezkoa izan da ekarpen komunitarioa. “Hau guzti hau ez litzateke posible izango kluba osatzen duten denen inplikaziorik barik. Bakoitzak bere alea ipintzen du eta familia bat gara”, dio Azkarragaurizarrek.

75 ume errugbi eskolan

Gaur egun, Elorrio Rugby Taldeak kategoria guztietan ditu taldeak. Azpimarratzekoak dira errugbi eskolako datuak. Eskola kirol adineko 75 ume dabilza Elorrioren errugbian, inoiz baino gehiago. “Eskolaz kanpoko ekintzetan lan handia egiten dugu umei errugbia ezagutarazten eta berau praktikan jartzen. Elorrioko eta inguruko ikastetxeekin ere hainbat proiektu ditugu eskuartean. Gainera, umeekin lan egiten duten entrenatzaile guztiak formatuta daude”, gaineratu du Azkarragaurizarrek.

16 eta 18 urtez azpiko taldeetan 18 eta 20 bat jokalaria dabilza, hurrenez hurren. Oraindik ez da kopuru nahikoa talde propio lez aritzeko, baina horretarako dago elkarlana. Gernikako errugbi klubak arazo berdina du eta euren batera ateratzen dituzte taldeak.

Seniorretan, ostera, 32 jokalaria dituzte gizonetan, eta 24 emaku-



Gizonen taldea harrobian hazi eta hezitako jokalaria gazteek osatzen dute.

meetan. Talde guztiak kontuan hartuta, 170 bat jokalarik janzen dute kamiseta hori-beltza astero.

Emakumeen taldea

20 bat urteko parentesiaren ondoren, emakumeen taldea berreskuratu izana da klubaren beste lorpen bat. 2020an neska talde bat batzen hasi zen Elorrioren, bertan errugbian aritzeko gogoz, eta zuzendaritza taldetik bultzakada bat eman zioten horri. Aurten Euskal Ligan lehiatzen hasi dira eta maila onean dabilza, gainera. Jokalaria batzuek lehendik ere badute esperientzia errugbian, baina orain euren herriko kamiseta defendatuz jokatu dezakete.

Gizonetan, oso talde gaztea dute; 23 urte dituzte, batez beste. Horiei

harrobitik datozenak gehituta, “urte askoan gerra emateko” moduan daudela uste du Azkarragaurizarrek: “Txiki-txikitatik Elorrioren eta klubean hezi diren jokalaria dira”.

Denda arrakastatsua

Herrira begirako lanketa da errugbi taldearen beste lan ildo bat: presentzia areagotzea eta klubagazko atxikimendua estutzea. Bide horretan, mugarri bat izan da Elorrio Rugby Taldearen denda ofiziala zabaltzea. “Egunero kalean gaude, denek ikusten gaituzte. Material asko dugu bertan eta, egia esanda, plazer handia da jendea kalean klubeko arropekin jantzita ikustea”, azpimarratu du Azkarragaurizarrek. Herrian ikusgaitasuna irabazi izanak babesle berriak lortzen ere

laguntzen du. “Hainbat babeslegaz elkarlanean gabilza eta inoiz baino hobeto gaude alde horretatik. Handi zein txiki, esker oneko gaude gure babesle guztiei”, nabarmendu du.

“Kanpotik begirata, ikusten da herriko kirol taldeen artean desberdintasunak daudela”

Azpiegiturak, txiki

Azpiegiturak ez dira klubari pareleloan hazi, eta kostatu egiten zaie errugbi zelaiari denei tokia egitea. Ondoko eskolako berrikuntzen barruan, aldagelak bitik bostera gehitu dituzte, baina, hala ere, ez

da nahikoa. “Instalakuntzak txiki geratu zaizkigu. Daukagun bolumenerako ez dira nahikoa”, dio Azkarragaurizarrek. Hauek dira arazoetako batzuk: zelaiak belar naturala duenez, hondatu egiten da eta “mantenu eskasa” dauka; argiztapena “eskasa” da eta gautzen hasi aurretik jokatzen dituzte partiduak; ez dute ez harmailarik ez eta aterperik ere eta “zaleek ezin dute beste espazio batzuetan lez kirol honegaz gozatu”. Beste era batera esanda, “kanpotik begirata ikusten da herriko kirol taldeen artean desberdintasunak” daudela. Ba ei dago errugbi zelaira begirako proiektu bat udalean, baina “oraingoz ez da euren lehentasunen artean sartzen, eta egoera egunero sufritzen dugunok beti-koak izaten jarraitzen dugu”.

Iazko parentesiaren ondoren, emakumeen areto-futbol derbia berreskuratu dute Beti Gol eta Mendibeltz taldeek

Kostatu den arren, Mendibeltzek nahikoa jokalaria lortu du taldea ateratzeko, eta horri eskerrak nesken areto-futboleko derbiak bizirik jarraitzen du eskualdean



Beti Gol eta Mendibeltz taldeko jokariak joan zen barikuan Zornotzako Larrea kiroldegian jokaturiko partiduan.

ARETO FUTBOLA • J.D.

Egon zen sasoi bat eskualdeko emakumeen areto-futbolak lau talde izan zituen. Gaur egun bi geratzen dira eta eurretako bati, Mendibeltzi, asko kostatu zaio berea aurrera ateratzea. Iaz ligan parte ez hartzea erabaki zuten, pandemiagaitik, eta

aurtengoan liga hasi aurretik arte jokari bila ibili dira aurrera jarraitzeko. Horregaitik, joan zen barikuan Zornotzako Beti Golek eta Mendibeltzek jokaturiko derbia ospatzekoa da, emaitza edozein izanda ere —4-0 zornotzarren alde—, emakumeen areto-futbolak

Durungaldean bizirik jarraitzen duela erakusten duelako. "Guretzat oso pozgarria da derbi hauek jokatzea, berezia izaten da", azaldu du Edurne Azpitarte Beti Goleko presidente eta jokalaria. Mendibeltzeko entrenatzailea den Edgar San Millanek ere aurrerantzean

derbia "urteroko hitzordu" bihurtzea itxaroten du.

Aurten taldea osatzea "ikaragarri" kostatu zaiela onartu du San Millanek. Azkenean, bost jokalaria berri batzea lortu dute—eurretari bi futboletik datoz— eta hamar jokalarigaz dabilta aurten. Normala

den moduan, hasieran kostatu egin zitzaion, baina urritik hona taldeak "garapen itzela" izan duela uste du San Millanek. "Hazkunde esponontziala izan da eta oso pozik gaude errendimenduz". Oraingoz, garaipen bi lortu dituzte aurten.

Aurrera begira, bide beretik jarraitzea dute helburu. "Ez dugu beste helbururik. Ikasten, hobetzen eta areto-futbolagaz gozatzen jarraitu gura dugu", dio San Millanek.

Edgar San Millan:
"Ikasten, hobetzen eta areto-futbolagaz gozatzen jarraitu gura dugu"

Zornotzako Beti Gol gorago dabil. Hainbat jokalarigaz indartu dute taldea eta, aurten, galdu beste irabazi dituzte partiduak, sei guztira. Momentu honetan, Bizkaiko ligako sailkapenaren erdialdean kokatuta daude. Asteburuan puntu bi goitik duten Otxartabe taldearen kantxan jokatuko dute eta garaipen batek Otxarkoagako taldearen gainetik ipiniko lituzke.

Mendibeltz taldeari, ostera, atseden hartzea egokitzen zaio asteburuan.

Jokaldia

Gaur egungo krosa

Joan zen asteburuan Espainiako kros txapelketa jokatu zen Andaluziako Jaen herrian. Fondoko atletismoan dagoen txapelketa garrantzitsuenetakoa bat dela esango nuke. Bertan, titulua, bai banakako mailan eta baita autonomia erkidegoka ere jokatzen da. Selektzio bakoitza sei partaidek ordezkatzeko dute. Aurten, osasun arazo batzuk direla-eta Euskadiko selektzioarekin parte hartzeari uko egin behar izan nion, baina ez dut txapelketa galdu nahi izan, eta igande goizean telebistan ikusten aritu nintzen. Hausnarketa bat etorri zitzaidan burura: harritu egin nau Euskadiko hainbat atletek, neska zein mutil, parte hartzeari uko egin izanak. Maila orokorrean ere, neske-



June Arbo Sarriugarte
Korrikalaria

"Harritu egin nau Euskadiko hainbat atletek, neska zein mutil, parte hartzeari uko egin izanak"

"Krosa indartzea beharrezko ikusten dut, batez ere datozen belaunaldi berrietan"

tan, baja asko egon diren lasterketa bat izan da.


Zein izan daiteke beherakada horren arrazoia? Txapelketari begira egondako baja batzuk lesioen ondorio izango ziren seguruenik. Baina beste asko krosa prestatu nahi ez dutelako. Eta, zergatik? Izan daiteke luzeegia

egin daitekeelako 10 kilometroko lasterketa bat, kontuan izanda gero pistan askoz distantzia laburragoa egiten dela. Kroserako prestakuntza gogorregia izan daiteke, kilometro asko egitea eskatzen duelako. Pentsatu dut balitekeela pandemiaren ondorioz denboraldi batez krosik egon ez izanak eragina izan duela, eta jendeak alde batera utzi duela modalitate hau.

Arrazoia dena delakoa izanda ere, pena bat dela uste dut Espainia mailan atletismoak gero eta maila hobea duen sasoi honetan, Euskadin krosean beherakada hau ikustea; nire ustez, atletismoan ikusgarrienerikoa den modalitate batean, gainera. Ez dakit zein izan litekeen honen konponbidea, baina krosa indartzea beharrezko ikusten dut, batez ere datozen belaunaldi berrietan.



merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurrenondo 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 6 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 9 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 10 - 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Markel eta Jone (879. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenen jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorixonak, **Eihar!** 14 mosu haundi etxekuen partez.



Gure etxeko mutilak 9 urte egin ditu. Ondo pasa zure egunean. Askok maite zaitugu denok.



Abadiñoko sorgintxo polittanak, zazpi urte eitten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoen partez, eta beziki asko maite zaituzten Aratzen eta Malenen partez.



Zorionak gure printzesa txikienari! Zorionak, **June**, zure 6. urtebetetzean. Mosu handi bat familia guztiaren partez!



Ai **Maialen**, Maialen, ai Maialennnn!! Heldu da zure urtegunean, eta hemen gatzoz tradizio bihurtu dan mezutxoagaz. Egun polit-polite pasau, pade-lien, bizikletan, añeketan, igerixen, edo helikopteruen bueltak! Askok maitte zaittugul Zorionak, guapa! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorion on-onak, **Larita!** Eguzkiari emondako 28. buelta ondo baino hobeto ospatzie espero dogu, zior gauz jakingo dozula zelan disfrutau! Zapataue izenda, ingurutik ibilikoga bestiok be, ez euki dudarik! Mosu haundi bat, politt hori! Zure kuadrillako tiabuenak.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 9° / 3° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 2° ☁

EGUAZTENA ↓ 17° / 4° ☁

DOMEKA ↓ 12° / 2° ☁

MARTITZENA ↓ 17° / 2° ☀

EGUENA ↓ 17° / 6° ☁

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Karama 4tet.

Liburu eta disko artean entsegu irekia.



Otsailak 10, eguena 19:00-etan. Hitz liburu-dendan.

“Ekarpenak egiteko eta jasotzeko den sormen-sarea sortzea dugu helburu”

Sortzailea Creativxs, sormen espazioa izan gura duen arropa denda ireki dute Durangon



Ana Luzia Dos Santos
BRASIL | 1995

Camila Schulz
ARGENTINA | 2000
Sortzailea-Crativxs

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Hiru emakume daude Sortzailea Creativxs proiektuaren atzean: Ana Luzia Dos Santos, Camila Schulz eta Vanesa Duran. Dos Santos orain 10 urte etorri zen Brasildik. Schulz eta Duran argentinarrek dira eta hiru urtetik hona Durangon bizi dira. Hiruren indarrak batuta ekin zioten proiektuari, irailean. Duranek moda diseinuan eta goi mailako jostintzan lan egin du, eta Schulzek webguneen kudeaketan. Dos Santos diseinu grafikoaren eta sare sozialen arduraduna da.

Zelan definituko zenukete Sortzailea Creativxs proiektua?

Ana Luiza Dos Santos: Herritarrei zeo-

zer desberdina eskaini gura genien eta gutariko bakoitzaren talentua batzea erabaki genuen, Durangon oraindino ez dagoen zeozer sortzeko. Arropa denda baino gehiago, sortze-espazio bat da Sortzailea-Creativxs. Gure sormena arropan aplikatzen dugu: gure diseinuak, irudiak... sortzen ditugu eta kirol-jertseak, elastikoak... egitea eskatzen dugu. Proiektua zabaltzen joatea da gure asmoa, marka propioa sortzea. Marka handi bigaz lan egiten dugu, baina inguruko askotariko artista eta diseinatzaileekin ere bai, euren lanak erakusteko espazioa eskainita.

Ez da ohiko arropa denda bat.

Camila Schulz: Ekarpenak egiteko

eta jasotzeko sormen sarea sortzea da helburua, ideiak eta ezagutza elkarregaz trukatzeko. Sarea hedatzeko, ateak zabalik ditugu, gura duten ekintzale eta artista guztientzat.

Ahal dugun neurrian, ingurumenagaz lagunkoia denagaz lan egin gura dugu

A.L.D.S.: Adibidez, laguna dugun argazkilaria batez doako argazki tailerra antolatu genuen. Bide horretan jarraitu gura dugu.

Birziklaturiko materialagaz egindako arropa ekologikoa duzue denda.

C.S.: Orokorrean, eta ahal dugun neurrian, ingurumenagaz lagunkoia den materialagaz lan egin gura dugu. Poliester birziklatua, artile birziklatua edo ardia gehiago babes-ten duen prozesutik sorturiko artileagaz egindako arropa saltzen dugu. Prozesu zirkular batera heltzea da helburua, jantziei ahalik eta probetxurik handiena atera eta ahalik eta arroparik gutxien baztertzeke. Erositako arropa nondik datorren aintzat hartzea ere garrantzitsua dela uste dugu, hortaz jabetzea, enpresa sozialki arduratsua izatea lortu gura badugu. Sortzailearen arropa ere Bilbon egindakoa da.

Durango eta Durangaldea duzue inspirazio iturri.

C.S.: Bai, pila gustatzen zaigu. Gainera, Durangok batzen gaitu, hirurok leku desberdinetatik gatoz eta.

A.L.D.S.: Durangok liluratu egiten nau. Ez du parekorik.

Sarean ikusi duen arroparen bila dator bezero asko. Sare sozialak tresna bat gehiago dira

Interneteko salmenta eta denda fisikoa uztartzen duzue. Hori da etorkizuna?

C.S.: Bai. Sarean ikusi duen arroparen bila dator bezero asko. Sare sozialak tresna bat gehiago dira, are gehiago ia denok erabiltzen ditugun sasoi honetan.

A.L.D.S.: Sare sozialek produktua ezagutarazteko balio dute. Gainera, zerbitzu hori eman ahal izateko laguntza ere eskaintzen dugu; sormen-espazioa handitzeko modua da. Adibidez, O'Connors tabernari ematen diogu zerbitzua.

Bezeroak eurak dituzue salduriko arropa erakusteko modeloak.

C.S.: Bai. Erositako jantziekin argazkiak ateratzea proposatu diegu bezeroei, sare sozialean erakusteko. Erantzun ona izan dugu. Bezeroekin hartu-eman sortzeko modua da, arropa erostez haratago doana.

Lau-hortza

Markel Onaindia Txabarri
Kazetaria



Etxea

Madriko ostatuan itzartu nintzenez, ondo lo egin ote zuten galdetu nion alboko literakoari, eta ezetz erantzun zidan. Ilea aspalditik urdinduta zeukan andre bat zen. Eguerdian gelara bueltatu eta hantxe jarraitzen zuten, kasu honetan telefonotik deika. Deitik deira arnasestuka. Orduan berba egin zidan loa kentzen zionari buruz: etxe bat alokatzea lortu behar zuten astebete baino lehen, ostantzean kalera bueltatu beharko zelako. Lagun batzuen diruagaz hartu zuten ostatura gaba hotzak pasatzeko.

Zereginak beteta ostatura bueltatzean hantxe topatzen nuen, gero eta urduriago. Atsedeen lekua behar zuena drama bat zen. Ez zuten nora jo. Pilar izenez, Lavapiesekoa. Ostaturiko epea agortzen zihoan.

Hurrengo iluntzean negar batean topatu nuen Pilar. Txarrena espero nuen. “Malkoak dira, baina pozarenak”, erantzun zidan. Gela bat alokatu zuten azkenean, Carabanchelen. A ze lasaitua. Albitea ospatzeko zerbeza bat hartu genuen beheko tabernan, eta kontatu zidan Las Letras auzoko kafetegi baten parean lo egiten zuela, zeinetan txokolatezko munduko tartarik onena saltzen zuten. Berak erosi ezin izan zuten tarta. Ez nion galdetu zelana eta zergatik heldu zen honaino, ezta berak niri ere. Errealitate desberdinak, telebistako reality bat merezi ez dutenak, bizi dugun mundua gordina bezain erreala delako.

Mailetak hartu eta Carabanchelera joan zen Pilar, bizirautea. Nik, Gaztelako lur zabaletan zehar etxerantz, pentsatu nuen ze gutxi estimatzen dudana nora jo edukitzea. Aterpea, sutondoko beroa.

Estetika gida

anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491